

Arteleku: bizirik, berpizturik, bilakatu! Zerbitzatu nahi duen erkidegoaren antzera!

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1980ko hamarraldiaren erdian fabrika izandako bat arte sorkuntzaren prestakuntzarako eta sormen lanerako egokitzea hautatu zuenean, batzuek ez zioten etorkizun argirik ikusi, eta kritika batzuk jaso genituen; bakarren batzuek lanbide eskola arrunt bat izango zela iragarri zuten... Alabaina, sustatzaileek (Kulturako diputatu Imanol Muruak eta bere taldeak) bazekiten hori baino askoz gehiago izango zela.

Xanti Erasok hartu zuenean zuzendaritza, 1980ko urteen amaieran, proiektua finkatzen hasten da; 90eko hamarraldian, arnas handiko zentro bat izatera iristen da arte plastikoen munduan: proiektuetan kalitate eztabaidea ezina erakusten du, giro sortzaile ausart eta abangoardista sortzen du, diziplina arteko askatasun eta nahasmendu bat bideratzen du, erabiltzaile maila handikoak ditu... eta, baita ere, gizartearen eskakizun konplexu eta anitzei erantzuten die, bereziki arazo sozio-kulturaleri, hausnarketaz eta ahots kritiko batez.

Bai Euskal Herrian, bai gure mugetatik kanpo, aitorten handiena 1990eko hamarraldi hartan bereganatzen duelarik, mende berriaren hastapenetan bide berritzaileak ibiltzen hasten da, programa berriak sortzen, gure adimena etengabe zabaldu nahirik urratu gabeko bideetara, «joera berriei» aurre hartu nahirik. Bertan goxo egin nahi ez duenak, erosotasuna deseroso duenak, bide berriak bilatzen ditu, arriskuak hartzen ditu, noski!

Arduradun politikoei beti eskaini diogun askatasuna, laguntza eta babes, kudeatzaileen profesionaltasuna (Aldunditik, Xanti Eraso; K6tik, Miren Eraso), eta sorkuntzaz eta berrikuntzaz arduratutako pertsona guztien indarra aski izan ziren «zerura igotzeko». 2006an, zuzendariak utzi egin zuen Arteleku, Miren Eraso gure arteetik joan zitzaigun, eta batzuek uste izan zuten Artelekuk hondoa joko zuela. Kontua da, ordea, inoiz ez diola hegan egiteari utzi: ez eztabaidea pozoitsuen ekaitza garaian, ez ekonomia globalaren gainbeherak kinka larrian jar zezakeenean ere.

Sortze garaian, 1980ko hamarraldi hartan, mundura etorri zen bezala, gaur egun ere Arteleku etengabeko bilakaera eta egokitzapen batean bizi da, diziplina arteko garaiotara, arte lanak eta sorkuntza hibridoak den egunotara egokituz, bai artean, bai kulturean, bai gizartearen esparru askotan. Ikus-entzunezko eredu berri bat ari da pixkanaka sortzen: ikus-entzunezko biltzen da diziplina artistiko-kultural eta sortzaile askoren sintesi bat, teknologiaren bilakaerak hartara laguntzen du, eta kontsumoaren ohiturak etengabe ari dira aldatzen. Beraz, proiektu berriak, ideia berriak, aukera berriak ernaltzeko loturak sustatu eta zuzentzeko garaia da. Arteleku, bere programazioaren ardatz kontzeptualen artean nabarmentzen dituenez diziplinartekotasuna, esperimendazioa, elkarreragintza eta partaidetza, ikus-entzunezkoetara berbideratu du bere xedea; Tabakaleraren muinean eta haren aldera ari da bilakabidean.

Bertan 12 urtez izan dudan ardura politikoagatik, zinez estimatzen dut sorkuntzarako askatasuna; pertsona bakoitzak bere pentsamendua eta iritzia adierazteko askatasuna; bakarkako nahiz taldekako lanaren moduak definitzeko askatasuna; askatasuna, orobat, baina ez arduragabekeria. Bitartekoak ipini ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak; sorkuntza ipini dute erabiltzaileek; eta horrela lortu dira emaitza ikusgarriak. Zehar aldizkaria da, neurri handi batean, bere 68 aleetan, emaitza horien erakusle, eta arduradun politiko nahiz teknikoei proiektuaren ontasunen aurrean erakusten dugun errespetuaren adierazle:

- Laguntza eta errespetua sortzaileen eta kudeatzaileen aurrean
- Askatasun guztizkoa sorkuntza eta adierazpen esparruan
- Aniztasuna pentsamoldeetan, ideietan eta esperientzietan
- Mestizajea elkarren aberastasun iturri
- Berrikuntza programetan eta zerbitzuetan
- Ikusmena etorkizunari aurre egiteko
- Aldatzeko, bilakatzeko, egokitzeko gaitasuna

Gaur harrotasunez esan dezaket Arteleku berriro ere zerura igotzeko bidean dela. Berriz ere, arnasberriturik abiatzen da Tabakalerak bere barnean eratuko duen ikus-entzunezko zentroaren bidean. Arteleku bizirik da, hazi egiten da, bilakatu egiten da, etorkizuneko beharrei aurre hartuz, batzuek hiltzorian ikusi nahi duten arren.

Maria Jesus Aranburu Orbeago
Kultura eta Euskarako foru diputatua



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

¡Arteleku: vive, renace, evoluciona! ¡Como la comunidad a la que sirve!

Cuando a mediados de los años 80, la Diputación Foral de Gipuzkoa, ideó la adecuación de un espacio fabril como lugar de apoyo a la creación artística tanto con la formación como en el proceso de creación de sus obras, hubo quien no vio su posible proyección de futuro y lo criticó; hubo quien consideró que iba a ser un centro de artes y oficios al uso... Sus promotores (I.Murua, Diputado de Cultura y su equipo) sabían que iba a ser mucho más.

A finales de los 80 con Xanti Eraso al frente, se empieza a asentar el proyecto; en los 90, coge vuelo y empieza a ser el centro de referencia para las artes plásticas, por la indiscutible calidad de sus proyectos, por la atrevida y vanguardista atmósfera creativa, por la libertad y mestizaje de las diversas disciplinas así como por la calidad de sus usuarios..., y porque responde también al complejo y diversificado ámbito de lo social y en especial las problemáticas socio-culturales, desde la reflexión y el discurso crítico.

Su mayor reconocimiento, tanto en Euskadi como allende sus fronteras viene precisamente en esta década de los 90, y primeros años de la siguiente década, época en que empezó a explorar nuevos caminos, nuevos programas..., siempre queriendo abrir la mente hacia caminos no transitados que se adelantaran a las «nuevas tendencias». Quien no es conformista y la comodidad le incomoda..., busca nuevas formulas..., y ¡se arriesga!

La libertad, apoyo y cobertura que siempre ofrecimos los responsables políticos, la profesionalidad de sus gestores (Xanti Eraso desde Diputación y Miren Eraso desde K6) y todas las personas implicadas con el deseo de crear y avanzar, hizo que «tocara el cielo». En el año 2.006, su director dejó Arteleku, Miren Eraso se nos fue y hubo quien pensó que Arteleku no remontaría el vuelo. La cuestión es que jamás dejó de volar, aún cuando las tormentas verbales malintencionadas y un clima económico global más que delicado pudieron entorpecer su camino.


Tal y como fue concebido a mediados de lo 80, hoy también Arteleku sigue evolucionando y adaptándose a una época de interdisciplinariedad, de obras de arte y creaciones híbridas, tanto en el arte, la cultura así como en distintos sectores de la sociedad. Lo audiovisual como compendio de las distintas disciplinas artístico-culturales y creativas, la evolución tecnológica y los hábitos de consumo en constante evolución están dando lugar a un nuevo modelo de audiovisualización, haciendo necesario impulsar y dirigir ese contacto hacia la fertilización de nuevos proyectos, nuevas ideas, nuevas oportunidades. Y Arteleku, como centro de creación que contempla como ejes conceptuales de su programación la interdisciplinariedad, la experimentación, la interacción y la participación, ha reenfocado su objetivo hacia lo audiovisual; evoluciona en y hacia Tabakalera.

Por la responsabilidad política que he tenido durante 12 años, valoro positivamente la libertad para la creación, la libertad para que cada cual exprese su pensamiento y opinión, la libertad para que cada cual defina su modo de trabajo individual o colectivo; libertad en definitiva que no libertinaje. La Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto los medios; los usuarios su creatividad; y los resultados han sido realmente magníficos. Y es en parte la publicación *Zehar* con sus 68 números fiel reflejo de esos resultados y un claro ejemplo también del respeto que los responsables, políticos y técnicos, profesamos al proyecto y a sus virtudes:

- Apoyo y respeto a la comunidad creativa y sus gestores
- Libertad absoluta de creación y de expresión,
- Diversidad de pensamiento, de ideas y de experiencias
- Mestizaje y enriquecimiento con la pluralidad
- Innovación en los programas y servicios
- Visión y apuesta por el futuro
- Capacidad de Mutación/Evolución/Adaptación

Hoy puedo decir con orgullo que Arteleku está en situación de volver a tocar el cielo. Vuelve a coger altura, evolucionando hacia el Centro de creación audiovisual que en su momento se ubicará en Tabakalera. Arteleku vive, crece, evoluciona... y se adelanta a las necesidades de futuro, aunque algunos consideren que esto es agonía...

Maria Jesus Aramburu Orbegozo
Diputada Foral de Cultura y Euskara



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera